

GUaiXE.net



Ezkurdia 4 1/2ko txapelketako txartel bila



Kirolak >> 11

Lakuntzako haurrendako jolas parkearen zati bat larunbatean mustuko dute. Bigarren eskuko azoka ere izanen da



Sakanerria >> 5



Txistorraren gorazarrea Arbizun >> 7




Burunda bete bertso >> 15



«Euskaraz bizi nahi dut» ibilaldia igandean >> 5




Ostegunean hasiko da 35/02 sumarioaren epaiketa >> 9



Euskal Festa hartuko du larunbatean Uhartek >> 7



Xotako entrenatzaile Imanol Arregi, saritua >> 12



Adan-Gaitanen eleberriak gerrillari bat du ardatz >> 14

ZORION agurrak



Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foruen Plaza 23-1 • Irurtzun: kate informatika, Bi ahizpak, 9 (atzea) • Ordainketa, Guaixeren bulegoan edota 3035 0018 47 0181012564 kontu zenbakian ingre-satuta egin daiteke.

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!



Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!

LEHALSA

Leiho-Isolatzailak • Alumninoa-P.V.C-Mistoak

Tailerra eta erakusketa
Zuntaipe auzoa z/g (N1 zaharra), Altsasu
Telf.: 948 468 559
info@lehalsaventanas.com
www.lehalsaventanas.com



Pili
ZORIONAK Pili! Ze kontent zauden ezta? Zure lagunak.



Yoli eta Hodei
ZORIONAK bikote!! Beste urte bat, ahaztu gabe e!!! Muxu handi bat.



Hodei
ZORIONAK rubito!! 6 urte dagoeneko, eh!! Muxu handi bat etxekoan partez.



Hodei
ZORIONAK!! Muxu monton bat denoin partetik. Ongi pasatu pelotari!!!



Yaritza
ZORIONAK Kubako izar distiratsuari!! Muxutuak!!



Asier Zubiria
ZORIONAK potxolo!! Oso ongi pasa zure urtebetetzean eta muxu pila bat. Aiton-amonak, osaba-izebak eta lehengusuak.



Asier Zubiria
ZORIONAK polita! Jada 5 urtetxo gure txirrundulari txikiak, ze handia!! Muxu asko. Aita, ama eta abuelo.



Juan
ZORIONAK!! Primeran pasa "txiki"!! Aita, ama, anai-arreba eta iloben partez.

urriak

11-17

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.net

Antzerkia

El pobre de Mí, TIO VANIA. Lastailaren 11n, ostiralean, 21:30ean Irurtzongo kultur etxean. **Tartean Teatro.**

Dokumentalak

Badira bagara. Lastailaren 11n, ostiralean, 19:00etan Etxarri Aranazko kultur etxean. **Tuterako Argia Ikastolari buruzkoa.**

Sakana Euskarabidean. Lastailaren 11n, ostiralean, 20:00etan Uharte Arakilgo udaletxeke pleno aretoan.

Zinema

Un amigo para Frank. Lastailaren 11n, ostiralean, 22:00etan eta lastailaren 13an, domekan, 20:10ean Altsasuko lortia kultur gunean.

Gru 2, mi villano favorito. Lastailaren 13an, domekan, 17:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

Mendi irteera

Belate-Berute. Lastailaren 12an, igandean, 7:00etan Irurtzongo Iratxo elkartetik. **Sakanako Mendizaleak.**

Txirrundula irteerak

San Benito ermita. Lastailaren 13an,

domekan, 8:30ean Altsasuko Burunda txirrundulari taldearen mendi bizikletakoen egoitzatik. **60 km.**

Ibilbidea

Euskaraz bizi nahi dut herri ibilaldia. Lastailaren 13an, igandean, 9:30ean Irurtzongo plazatik abiatuta. Ibilbide luze eta motza Irurtzun eta Arakilen barna.

Erakusketak

Munstroak Izenik Gabe. Hondakinak biziberritu dituen erakusketa.

Lastailaren 12ra arte, astelehenerik ostiralera, 18:30etik 21:00etara Altsasuko lortia kultur gunean.

Ziza eta landareak. Lastailaren 13an, igandean, 10:00etatik 18:00etara Etxarri Aranazko plazan. **Hartzabal elkarte eta Mikologia taldea.**

Bestelakoak

Euskal festa. Lastailaren 12an, larunbatean, 11:00etatik aurrera Uharte Arakilen.

Bigarren eskuko azoka+erabili gabeko produktuak. Lastailaren 12an, larunbatean, 11:00etatik 14:30era eta 16:00etatik 18:30era Lakuntzako pilotalekuan. **Parkea Martxan.**

Parkearen mustutzea. Lastailaren



Bihar, larunbatearekin, denboraldi hasierako festa ospatuko dute Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

12an, larunbatean, 17:30ean Lakuntzan. **Parkea Martxan.**

Afaria eta DJ Sergio Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean. Lastailaren 12an, larunbatean, 21:00etatik 1:00etara Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean. Denboraldi hasierako festa.

Deialdiak

Euskal Presoak Euskal Herrira!

Lastailaren 11n, ostiralean, 20:00etan, Irurtzongo, Lakuntzako, Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzea.

Errepresorik ez! Alde hemendik! Utzi bakean Sakana . Lastailaren 12an,

larunbatean, 13:00etan Altsasuko Foru plazan. **Ospa. Eskualdeko mobilizazioa**

Euskal Presoak Euskal Herrira! Lastailaren 13n, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

Sakanako Langabetuen Asanblada. Lastailaren 14an, astelehenean, 15:30ean Altsasuko Gure Etxean.

107.3 FM
beleixe online
edo uhinbak aplikazioaren bitartez www.guaixe.net

Ostiralero 9:30etik 10:30era **SAIOA**

Asteburuko agenda

Asteko errepasoa: albisteak, kirolak, Urbasako igoera, Txistor Eguna, Adan Gaitan, Koldo Murgiondo...

Errepikapenak 14:00etan eta 19:00etan.

Piztu irratia!

Arbizuko txistor ekoizleak



60 urte pasa igaro dira jada Arbizun harategia ireki genuenetik eta orduan-
txe sortu zen herria eta abizena bat egin dituen txistorra ospetsua. Belaun-
diz belaunaldi tradizioa mantendu nahi izan dugu gaur egun egiten ditu-
gun produktuetan eta horren lekuko dira urte hauetan guztietan lortutako
sariak. Adibidez 2011 urtean "Urrezko Oilar" sariarekin nabarmendu gintuz-
ten, gure txistorra produktu gastronomikorik onena izendatuz.

948 460 628 • Utzubar industrialdea, E kalea 1-2 • Arbizu

“Berezko nafar txistor tradizionala”



Utzubar industrialdea
ARBIZU
Tel. 948 460 499
www.embutidosjuanflores.com



Merezimendu osoz, txistor ekologikoa da gure produktu izarra. 2011n 3. aldiz
Nuremberg-eko BIO FACH munduko eko-azokarik garrantzitsuenera joan ginen.
Danimarkara, Holandara, Catalunya eta Madrilera ere ailegatzen dira gure pro-
duktuak. Arbizutik mundu zabalera, beti ere gure artisau tradizioari eutsiz.



www.chistorradenavarra.com

LAKET



948 461 882

Utzubar Industrialdea E kalea P-10 ARBIZU



*Gure aldetik mila esker gudan konfidantza duzuen bezero guztiei eta
bide batez igandean Arbizura etortzeko gonbitea luzatzen dizuegu
egun polita pasa dezazuen; txistorra janez, lagun artean egonez.*



Rosa Otxoa-Errarte Goikoetxea

astekoa

Zaborrak berriz ere

Pasa den apirilean Xabier Reparazek gogoratzen zigun gure zaborren gestioa nola aldatu den azken urteetan. Esaten zigun ere, sortzen ditugun hondakinek gora egin dutela etengabe. Eustaten datuen arabera, 2011n europar bakoitzak 503 kilo zabor sortu zuen, estatuan 531koa izan zen urte horretako batz bestekoa. Xabierrek esaten zuen bezala zabor horiek mendi magaletan lurperatuta desagertu izan dira gure bistatik. Baina "desagertze" miresgarri

hori geroz eta zailagoa da. Izugarriak dira, adibidez, "7. kontinentea" izenez ezagutzen denaren irudiak: 1.400.000 kilometro koadroko zabor uhartea Ozeano Barearen erdian. Handiena da, baina ez bakarria. Hondakin horiek guztiek ingurugiroan duten eragina denok sufrituko dugu.

Sakanan badakigu orain zaborrek arazoak planteatzen dituztela. Ez dira horren erraz desagertzeko. Gutxienez ondo begiratu behar dugu zer, non eta noiz

atera behar den, eramana izan dadin. Sistema berriak baditu bere alderdi ahulak, martxan jarri berriak diren gauza guztiekin gertatzen den bezala (agian konpostadorak herri erdian kokatzea ez da ideia hobereena izan). Baina gauza onak ere, eta horien artean arazoaren kontziente izatearena dago. Birziklatzea pausu handi bat da hondakinen gestioan, baina garestia da, eta beti dago zati txikia ez den errefusa. Hurrengo urratsa ahalik eta

hondakin gutxien sortzearena izango litzateke. Eta hori bereziki erosketak egiterakoan kontuan hartu behar da. Geure poltsa dendara eramaten hasi gara, baina gehiago egin dezakegu. Askotan ikusten ditugu supermerkatuetan fruta edo tomateak plastikozko bandejatxoetan sartuta eta plastikoz bilduta. Edogailetak binaka poltsa batean gordeta, gero kartoizko kaxan sartuta eta kartoia berriz plastikoz bilduta. Beharrezkoa da hori guz-

tia? Kontsumitzaileek botere handia dugu merkatuan ados jarriz gero. Eta ez bagenu erosiko, adibidez, behin eta berriz plastikoz bilduta dagoen produkturik? Xabierrek esaten zuen etorkizuneko zaborrak minimora eramateko moduak aurkituko ditugula. Eta itxoin beharrean guk geuk bultzatzen baditugu aldaketak gure portaerarekin? Gure etorkizuna babestu nahi badugu, mugitzen hasi beharko dugu, honetan eta beste arlo askotan.

barrutik kanpora Urria

Gaixo terminala kartzelatu nahia, etxera ordezkaleratu edo isolatutako gaixo larriak, ohera lotuta erradioterapia saioa, ... / Isolamenduak, zigorrak / Estraditatuak / Bi desagerturen ikerketak bertan behe- ra utziak / Bizi guztirako kondena bat / Hil zorian emaztea, epailearen baimena arren ikusi ezin izan duena / Istripu bat / Familiartekoei tratu iraingarriak / Hainbat errefuxiatu atxilotuak

Frantzia eta Venezuelan... eta udako abar amaigabea.

Hodei: gainditu ditu antropologia karrerako lehen azterketak. Poxtiña: hilabeteak daramatza ospitalean noiz artatuko zain. Popi: aurten konplutuko du Frantziako kondena, eta azaroaren 4an Espainiara ekarriko dute bertako kondena betetzera. Oihan: Unibertsitate Sarrera-ko azterketak gainditu du eta karre- ra bat hasiko du.

Madrilek jarrera bortitz eta itxian darrai. Paranoiarena dirudi udako erasoaldiak. Delitu bihurtu dute presoek eskubideak aldarrikatu eta defendatzea. Delitua da Etxeratekoa edo preso baten senide izatea, preso izatea bera ere. Iruzurra, gezurra, eta ustelkeriaz gainezka, presoak hartu ditu Madrilek politikagintzako baliabideetat. Ondarroa, Audio eta Bilboko aferez gain, ETXERATEN egoitza eraso dute,

udaletxeak mehatxatu dituzte banderolengatik, hainbat eta hainbat ekintza debekatu dituzte. Azkenik 18 pertsona izan dira atxilotuak, presoek eskubideak aldarrikatu eta defendatzeagatik soilik.

Baina herriak ez du presoek eskubideen defentsan etsi. Asteburuko Bilboko jendetza izugarria berme. Kartzela politikaren hainbat salaketa Europatik, Estrasburgoko epaia etorriko

da. Ez dugu etsiko. Ekarriko ditugu.



ETXERAT

hara zer dien Coachin-a krisi garaian

Azkenaldian coaching hitza entzunduzu? Ziurrenik bai, zeren eta estutasun garai hauetan coaching-a orain gutxi arte enpresari handi edo goi-exekutiboetara mugatuta zegoena, alor desberdinetako gero eta jende gehiagok (langabetuak, langileak, etxekoandreak, funtzionarioak, ekintzaileak...) eskatzen du.

Coach-a izanik, gero eta sarriago beraien edo bikoteen lan galtearen ondorioz beren egoera

ekonomikoaz edo lan egoeraz kezkatuta dauden pertsonak etortzen dira niregana. Pertsona hauek hobeto sentitu nahi dute euren buruarekin edota iristen ez den lan aukera horren ondorioz dauden egoeratik irteteko modua aurkitzeko beste gauza batzuk egin nahi dituzte. Zeren eta gero eta jende gehiago esnatzen ari da eta bere erosotasun eremutik irten nahian, beren bizitzak aldatu nahi dituzte, bakarrik aldatuko diren

esperoan egon behar.

Hala ere, asko dira euren bizitzako gertaeren aurrean jarrera ezkorra eta pasiboa dutenak, beraien erosotasun eremuan jarraitzen dutenak non kexak eta biktimizazioak gero eta indar handiago hartzen duten bitartean, beraien bizitza aldatzeko ezer ezin dezaketelako sinesmen arriskutsua indartuz.

Coach-a naizen aldetik, gauzak beste modu batetara egitera ani-

matzen zaitut emaitza desberdina lortzeko. Badakit ez dela erraza korrontearen aurka joatea, dena gaizki dagoela eta okerragora doala entzuten den bitartean. Horrek jendea beldurra edukitzera eramaten du eta beren egoeraren arduradun beste batzuk bihurtzen ditu. Argi dago lana krisiaren ondorioz galdu baduzu, ez dela zure errua, baina hori aldatzeko eman behar diren pausoen arduraduna zuzara. Guztiok dau-

kagu gauzak aldatzeko potentziala. Berrikasi eta gudan sinestean datza, geure burua berriz asmatzeko, eta hori lortzen laguntzen digu coaching-ak. Horregatik maite dut lanbide hau, bizimodu bat delako eta coaching-a progatzera gonbidatzen zaitut.

Ana Morales

www.essencoaching.com

www.anamoralescoach.com

Guaixe

ARGITARATZAILA: Bierrik Fundazioa • bierrik@guaixe.net
GUAIXE: Foru Plaza 23, 1. solairua, 31800 ALTSASU •
 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675 • guaixe@guaixe.net
PUBLIZITATEA: Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.net •
 Maria Saez de Albeniz Bregaña • publizitatea@guaixe.net •
 948 564 275

Erredakzio burua: Alfredo Alvaro Igoa
Erredakzioa: Maider Betelu Ganboa
Maketazioa: Ainhoa Etxeberria Pikabea
Laguntzaileak: Amaia Amilibia Salgado, Ainhoa Urretagoiena
 Arruabarrena, Gixane Andueza Goikoetxea, Erkuden Ruiz Barroso
 eta Maialen Huarte Arano
Zuzentzailea: Oihana Zubeldia

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200 ale

LAGUNTZAILEAK:

Mank
 s a k a n a

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
 HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA
 ETA KULTURA SAIA
 Hizuntza Politikako Sailburuordetza

LOMCE LEGEAREN KONTRA: Herenegun onartu zen hezkuntza sistemaren erreforma berria. Hezkuntza arloko eta euskalgintzako hainbat eragilek lege horren kontra

protesta egiteko manifestazioa deitu dute Bilbon, larunbatean, 17:30ean. Institutuan atzo LOMCEn kontra azaldu ziren.

sakanerria >>

>> Arakil / Irutzun

Euskaraz Bizi egunean, herri ibilaldia

Igandean, 10:00etan, Irurtzundik abiatuko da. Bi aukera daude, helduendako bata eta haurrendako bestea. Izena ematea doanekoa da.

Euskaraz bizi nahi dut! lelopean hamaika lasterketa eta ekitaldi antolatzen ari dira Euskal Herrian barna. Horietako bat Irurtzunera eta Arakilera iritsiko da. Igandean, 10:00etan, herri ibilaldia antolatu dute, Irurtzunen hasi eta Arakilera helduko dena, atzera ere Irurtzunen despeditzeko. Zehazki bi dira antolatu diren ibilaldiak: helduendako bata, eta haurrendako eta familiendako bestea, Ion Barbarin aktoreak altxorraren bila jokoarekin animatuko duena. Ekitaldia Kontseiluak, Irurtzungo eta Arakilgo Udalek eta Aizpea Euskara Elkarteak antolatu dute, Pikuxar, Iratxo eta Atakondoa



Batzuk entrenatuta joanen dira herri ibilaldian parte hartzera.

elkarteen laguntzarekin.

Euskaraz bizi nahi dut! kamixeta jartzeko deia

Ibilaldietan parte hartzea doanekoa da, baina izena eman behar da aurretik ala egunean bertan.

Ibilbidean Irurtzun eta Arakilgo txoko bikainak bisitatu eta gero, bukaeran auzatea, musika eta zozketa izanen dira Irurtzungo plazan. Kontseiluak ibilbidera *Euskaraz bizi nahi dut!* leloa duen kamisetarekin joateko deialdia

Egitaraua

9:30ean Irurtzungo Foruen plazan, izen ematea (dohainik).

10:00etan Ibilbideen irteera.

-Haurrendako ibilbide motza: Animazioz apaindua, altxorraren bila jokoarekin, Ion Barbarinen eskutik. Ibilbidea: Foruen plaza, Larraun ibaia, zubi berria, Etxeberrirantz, Estrentxi, Etxeberri eta Irurtzungo Foruen plaza.

-Helduendako ibilbide luzea: Foruen plaza, Plazaola, Orzuloko parkina, autobia azpia, zubi berria, Aixita, Estrentxi, Etxeberri eta Irurtzungo plaza (2 ordu eta erdi).

12:30ean Amaiera. Auzatea, musika eta zozketa. Partaide guztiei diploma bana banatuko da eta zozketan parte hartuko dute.

*Aurretik izena emateko: Irurtzungo Udala, Arakilgo Udala, gazte txokoa, Pikuxar eta Iratxo. Egunean bertan Foruen plazan.

*Euskaraz bizi nahi dut kamisetak Pikuxarren salgai eta egunean bertan Foruen plazan.

egin du. Kamisetak aurretik eros daitezke Pikuxar euskara txokoa edo egunean bertan Irurtzungo Foruen plazan. Bat egin *Euskaraz bizi!* herri ibilaldiarekin.

>> Lakuntza

Auzolanean egindako parkea mustutzeko garaia

Larunbatean, 17:30ean. Egunean bertan bigarren eskuko azoka eta erabili gabeko produktuen azoka izanen da 11:00etatik 14:30era eta 16:00etatik 18:30era pilotalekuan

Parkea Martxan taldeak bere helburua lortu du eta Lakuntzak badu haurrendako parkea. Zinema berritzeko lanengatik, haurparkea Larraina kaleko plazara lekualdatu zuten. Baina parkeko altzari batzuk erabili ezinik gelditu ziren eta beste batzuk ez zeuden baldintza onenetan, segurtasun neurriak "nekez" betetzen zizutzelarik. Haurrendako jolas toki baten premia zegoela ikusita lantaldea sortu zen, Parkea Martxan; Udalak, herriko taldeek, gurasoek eta interesa zuten herriarrek parte hartu dute.

Jolas parke berria aurrekoa zegoenaren ondoan dago. Ingu-

ruan dauden beste azpiegitura batzuk baliatuz aisialdi gune hori errazago osatu ahal zela hartu zuten kontuan. Lau gune sortu dituzte: haurrendako parkea, txikienendako jolas eremua duena; mahaiak eta altzariak dituen gunea; areto futbolarako eta saskibaloirako hormigoizko pista eta belarrezko futbol zelaia.

Aurrekontua

Udan egin diren urbanizazio lanetarako udalak 108.183 euro bideratu ditu. Lakuntzako Udalak aurreratu du diru hori, baina Espainiako Sustapen Gobernuari pasakodio faktura, berari dagokiolako, zinema berritzeko egiteko guztiekin bezala, lan horiek egitea. Jolas parkearen aurrekontua 24.000 euro ingurukoa da eta taldeak orain arte

Bigarren eskuko azoka

Liburuak eta, arropa, mozorroak, informatikako tresnak, elektrotresnak... Denetarik opatuko du bihar bigarren eskuko azoka bisitatzeko duenak. Gainera, mustu gabeko gauzak ere izanen dira. 11:00etatik 14:30era eta 16:00etatik 18:30era Behar-zana pilotalekuan izanen da.

15.000 euro lortu ditu.

Diru kopuru mugatua zutenek, parkeko altzarietarako aurrekontua eskatu zuten lau enpresetan eta 3 eta 12 urte bitarteko haurrak izan ziren haien gogokoena zena aukeratu zutena. Horrekin batera, parkeko inguru ez egituratua ere haurrek diseinatuko dute.

>> Etxarri Aranatz

Badira, Bagara dokumentala Etxarri

Euskarak Erriberan bizi duen egoera erakusten duen dokumentala ostiralean, 19:00etan, proiektatuko da Kultur Etxean

Tuterako Argia ikastolak, Mondragon Unibertsitatearen laguntzaz eta euskarak Erriberan bizi duen egoera ezagutarazteko asmoz, *Badira, Bagara* izeneko dokumentala sortu du. Dokumentala irailaren 6an mustu zen Donostian eta orduetik Euskal Herriko 11 txokotara eramana da.

Aipatu dokumentala Sakanara iritsiko da. Ostiralean, hilak 11, 19:00etan, Etxarri Aranatzko Kultur Etxeak *Badira, Bagara* dokumentalaren proiektzioa hartuko du. Helburua Nafarroako eremu ez euskalduneko euskara nola bizi den ezagutzea da. Euskara zabaltzeko lanbidean Tuterako Argia ikastolak lan handia egiten du eta hori erakusten du dokumentalak.

Sorgiñak taberna
LAKUNTZA
948 576 357

GANUZA SUKALDEAK
Sukalderako altzariak
GANUZA BERMEAREKIN
Bainu gelako altzariak
Horma armairuak
Etxetresna elektrikoak
Tel: 948 460 203 Fax: 948 460 673
c.ganuzacocinasganuzacom
www.cocinasganuzacom
Etxarriko industrialdea
ETXARRI ARANATZ

PPSOE,
ETB
digitala
Nafarroan orain!
Berria erosi taldea

SAN DONATO
estanko-paperdenda
Irailaren 16tik aurrera
10:00-15:00 eta 16:30-20:00
Loterías y Apuestas del Estado
Fernando Urkia kalea, 17 behea
Arbizu · 948 462 033

Non erabili

REDIN LURRINDEGIA ETA KOSMETIKA
ALTSASU
50 €ko erosketa batengatik Julene dendan erabiltzeko %10 deskontu balea.

LIZARDI ESTETIKA ZENTROA
ETXARRI
% 5a depilazioetan.

HOSTO GORRI ALTZARIAK
ETXARRI
Dendako produktuetan % 5eko deskontua.

ARGIRO OPTIKA
ETXARRI
% 10eko deskontua eguzki betaurrekoetan eta % 15eko betaurreko graduatuetan.

ZELANDI KIROLDEGIA
ALTSASU
Lehenengo matrikula doan.

GOROSTI
ALTSASU
30 €tik gorako erosketetan % 10eko deskontu-balea hurrengo erosketarako.

LA CIGÜEÑA
ALTSASU
60 €tik gorako erosketetan, %10eko deskontu-bale bat hurrengo erosketarako.

ANTSOTENEA
IRURTZUN
%10eko deskontua.

ITXESI JATETXEA
UHARTE ARAKIL
Otorduetan kafea edo txupittoa doan.

IZARA
ALTSASU
%10eko deskontua etxeko jantzi eta osagarrietan eta % 5eko deskontua gortina eta enkarguetan (eskaintza ez metagarria).

www.guaixe.net-en zerranda osoa ikusgai

➤ Irurtzun / Irañeta

Etzi bi beato berri


Igandean, Tarragonan, Espainia-ko gerra zibilean hil zituzten 522 gizon eta emakume beatifikatuko dituzte. Eguerdian hasiko den elizkizun handi batean beatifikatuko dituzte guztiak. Haien artean bi sakandar daude: Saturnino Pascual Jaunsaras Zabaleta irurtzundarra eta Lorenzo Lizasoain Lizaso irintarra. 2007ko lastailaren 28an, Erroman, arrazoi beragatik beatifikatu zuten Bernardino Irurtzun Otermin domingotar fraide egiaerretarra.



Hainbat gotzain izanen dira etzi.

Lorenzo Lizasoain Lizaso
(Jorge Luis anaia)

Irañetan jaio zen 1886ko irailaren 4an. Jaio eta hurrengo egunean bataiatu zuten Lorenzo. Migel Angel eta Francisca ziren bere gurasoak. Bi alaba eta bost seme izan zituzten. 1901eko lastailaren 26an San Andres del Palomar (Bartzelona) nobiziatuansartu zen. Abitua hurrengo urteko martxoaren 30ean jantzi zuen. Bere aurreneko profesioa 1903ko irailaren 6an izan zen eta betiko profesioa 1908ko agorriaren 28an. Han zegoela nafarreri epidemia batek jo zuen. Azpeitian (Gipuzkoa, 1904-1907) sukaldari eta irakasle laguntzaile izan zen. Ondoren Katalunian, Kordoban (urte bakarra) eta Toledon (1930-1936) egon zen. Han zegoela, Grugliascora (Italia) joan zen urte erdirako, trebatze espiritual eta pedagogikoa hobetzeko. Toledora bueltan administratzaile, zuzendari orde, irakasle eta internoen prefekto izan zen. 1936ko agorriaren 24an fusilatu zuten.

Saturnino Pascual Jaunsaras Zabaleta
(Herminio anaia)

1912ko otsailaren 11n jaio zen Irurtzunen eta 15ean bataiatu zuten. 10 anai-arreba ziren. Pedro, aita, zurgina zen eta oso erlijiosua. Hilaria, ama, errukiorra eta karitatsu. Biek ere familia anitza aurrera ateratzeko gogor lan egin zuten. 1915eko garagarzoaren 19an konfirmatu zuten Saturnino.

1924ko abenduaren 28an Alesbesko martiri juniortzansartu zen. Abitua 1928ko irailaren 8an hartu zuen Les Avellanesen (Lleida) eta han bere aurreneko botoak eman zituen. Calatayud (Zaragoza, 1930ko agorri), Burgos (1934ko ilbeltza) eta Lucenatik (Cordoba, 1935eko agorri) pasa zen. 1936ko ilbeltzean Chinchonera (Madrid) lekualdatu zen. Antza zalantzan zegoen bere erlijio bizitza bere anaien adibidearekin biziberritu zen. Erlijio gizon gisa 7 urte eman ondoren, 24 urterekin Madrildo Casa de Campion hil zuten 1936ko garilaren 29an.

➤ Irurtzun

Argentinako Hazien Bankua laguntzeko Bigarren Eskuko azoka arrakastatsua

Nekazaritza ekologikoa indartzeko asmoa du Argentinako Hazien Bankua izeneko egitasmoak. Hazi autoktonoak berreskuratu, babestu, ekoiztu eta zabaltzea da xedea. Ekoizle txikien, nekazarien, indigenen eta Agroekologian Goi Mailako Teknikari izateko ikasten dabilzanen helburua da. Horretan dabil Oihana Olaberria, Ihabarko bizilaguna eta orain Argentinan bizi dena. Berak aurkeztu du proiektua; hazi autoktonoen ekoizpena, kontserbazioa eta trukaketa bultzatzen segitzeko sostengu ekonomikoa ezinbestekoa baitute. Egun 300 hazialdaera dituzte eta proiektua ezezean gelditu ez dadin laguntzeko asmoa izan du Itxipururen azokak.

Sekula baino diru gehiago

Jendearen parte hartzea handia izan zen joan den asteburuko azo-



Jendetza erakarri zuen azokak. MAIALEN HUARTE ARANO

kan. Eguraldiak ere jendea hurbil arazi zuen Irurtzunge plazara eta Bigarren Eskuko Azokak eskaintzen zituenak erosteko aukera izan zuten askok. Arropa, altzariak eta ordenagailuak izan ziren arrakastatsuenak. Baita hurrengo jokoak ere. Eta liburu andana ere bai. Bestelakoak ere ikusgai jarri zituzten: erakusketa bat Hazien Bankuen

nondik norakoak ezagutzeko, hurrentzako ludoteka eta Entre2bersiones bikotearen musika.

Salmenta ongi joan zen antolatzailen arabera: 2.186 euro lortu zituzten azokan. Eta horri, aurreko asteburuan egindako afaritikatara atakoa gehitu behar zaio, 890,7. Guztira 3.076,7 euro bidaliko dituzte Argentinako Hazien Bankura.

MOTZEAN

Haustura hidraulikoaren kontrako Foru Legea

Ezohiko gasa ikertzeko eta ustiatzeko haustura hidraulikoa edo fracking teknika bezala herrialdean erabiltzea debekatzen duen Foru Legea onartu zuen Nafarroako Parlamentuak atzo. Sozialistek sustatutako lege horren alde egin zuten Bilduk, Aralar-NaBaik. I-Ek eta Geroa Baik. Kontra azaldu ziren UPN eta PP. Legeak dagoeneko emandako baimenei, tramitatu direnei eta etorkizunean etorri daitezkeenei eragiten die. Errioxa eta Kantabriaren ondoren, teknika horren kontra agertu den hirugarren erkidegoa da Nafarroa. Espainiako Gorteetan frackingari lege babesa emateko lege egitasmoa dago.

PEGASO

Espainiako Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioak hidrokarbuoen inguruko ikerketa egiteko baimena eman dio Frontera Energy Corporation, SL enpresari. Helburua, hidrokarbuo putzuak opatzea. Araba, Gipuzkoa eta Nafarroa hartzen duen lur eremuan egiten du ikerketa aipatu enpresak. Guztira 102.884,3 hektarea ditu eta Sakana barnean hartzen du. Eremua Pegaso izenarekin bataiatua dago.

Udala kalitatezko osasun-laguntza bermatzearen alde

Zangozako Merindadeko udalek lege ekimen jarri dute martxan eta haren bidez kalitatezko osasun-laguntza bermatzea nahi dute. Horrekin batera, Nafarroako landa eremuetako herritarrek dituzten esku-bidea eta zerbitzuak arautzeko asmoa dute lege ekimen horren bidez. Etxarri Aranazko eta Olatzagutiko Udalek azken bilkuretan babesa azaldu zioten ekimenari.

Baso aprobetxamendua enkantean

Lakuntzako Udalak plegu itxiko enkante bidez baso aprobetxamendua saldu nahi du. Beheko basoan dauden Urritzamendi eta Usategietan dermioetan dago aprobetxamendua. Enkantera 2.768 pago aterako

dira, 155 m³ zur eta 1.7773 m³ egun egitendutenak. 23.930 euro (BEZ kanpo) eskatzen ditu Lakuntzako Udalak baso aprobetxamendu horregatik. Interesatuak hilaren 16ra arte aurkeztu ditzakete proposamenak.



Pentsio duinen alde

Sasoia, Nafarroako Jubilatuen Elkarteak, murrizketarik gabeko pentsio duinak aldarrikatu zituen asteartean Irurtzunge azokan. 45 pertsona bildu ziren elkarretaratzean eta pentsioen erreformak erabat pobretuko dituela eta bizi maila gehiago hondatuko diela salatu zuten. Erreformak erosketa ahalmena jaitsi, bizimodua garestitu, botikak eta ambulanzia ordaindu beharra ekarriko diela salatu zuten ere.



La Encina Etxe Erregionalen kultur astean

Ostegunetik domekara Iruñean ospatu zen XXV. Nafarroako Etxe Erregionalen Federazioaren kultur astea. Osteguneko etxe bakoitzeko banderak eta damak izan ziren mustuzteki-taldiko protagonistak. Ostiralean Iruñeko Udalak egin zuten harrera eta hurrengo egunean Nafarroako Gobernuaren txanda izan zen. La Encina-ko kideak Jose Iribasek Nafarroako jauregian egin zuten harreraren presenten izan ziren. Ondoren, mahaiaren ondoan bildu ziren. Domekako kulturemanaldiekin despeditu zen astea.

Txondorra Lizarrustin

Irailaren 22an piztu zuten txondorra Lizarrustin eta bihar eguerdian hasiko dira handik ikatza ateratzen. Une horretan Eneko Lazkoz eta Aitor Sarriegi bertsolariak ariko dira trikitilariak lagunduta. Ondoren, ikazkin bazkaria izanen da.

HIJOS DE GOIKOETXEA
EDARI BANATZAILEA

Askotariko produktua
Zatoz gure ardotegia ezagutzera!

hijosdegoikoetxea@yahoo.es
948 467 317 · 696 979 279 · Geltoki auzoa 11 · Altsasu

SAKANA

Irrati lizentzien banaketa errekurrituta

Behin-behinean lizentzien ematea geldiarazteko eskatu du Zeroa Multimedien epaitegian

Nafarroako Gobernuaren FMko 42 lizentzien banaketa Nafarroako Auzitegi Gorenean dago. Onda Vasca irratien jabe den enpresak, Zeroa Multimedien, eraman du gaia auzitegi lizentzia banaketak "informazio pluraltasunari eraso" egiten diolako. Horretarako Zeroa Multimediai argudiatu du lehentasuna "eduki lokalik eskaintzen ez duten irrati estatale" eman zaiela emititzeko aukera. Eta euskara ofiziala den eremuetan hizkuntza hori ere ez dutela erabiltzen nabarmendu du. Zeroak 9 lizentzia eskaera egin zituen, bat Altsasun. Nafarroako Gobernuak euskarazko eskaintzarik ez zuen irratiri eman zien Altsasuko hiru lizentziak: Ser (84,64), Punto Radio (79,12) eta Cadena Dial (77,64). Gabe gelditu ziren Onda Vasca (73,7), Abian Komunikazioa (71,77) eta Radio Maria (59,27).

COPEK 2 LIZENTZIA

Punto Radio irrati desagertu eta COPEn integratu da. Horrek egoera bereziazortzen du Altsasun, irrati berak bi lizentzia lituzkeelako. Bat saltzeko aukera izanen luke, beraz. Gaur egun Ondas, S.A. enpresak du irrati lizentzia komertziala, Radio Navarra-Cope irratiak erabiltzen duena. Baimena 2014ra arte du. 1994tik 2003ko lastaila akaberara arte Radio Navarra-Copek estudioa izan zuen Altsasun eta bertatik zenbait ordu emititzen zituen. Gaur egun kontzesioa berremisioa egiteko erabiltzen da, eta Altsasutik ez da ezer emititzen

Kolonbiako gatazka Askapenaren eskutik

Gaur, 19:00etan, Altsasuko Iortia kultur gunean

Walter Agredo, Kolonbiako preso politikoen elkartasunerako taldeko kidearen hitzaldia antolatu du gaurko Askapenak. Erakunde internazionalistak Inperialismoa hondoratu arte, *Europa astinduz* leloa duen dinamikaren barruan dago kokatua hitzaldia.

Arbizu

Txistorraren gorazarrea

Igandean, 10:00etatik aurrera, txistorraren hiriburu bihurtuko da Arbizu. Bosgarren aldiz Txistor eguna hartuko du herriak. Arbizun ekoizten den produktu horren erakusleihu ederra prestatu du udalak. Embutidos Arbizuk, Flores hestekiak-ek, Laket artesanoek eta Razkin harategiak emandako 120 kilo dastatzeko aukera izanen da aurten. Pintxo eta ardo ondua euro eta erdi ordainduta dastatu ahalko dira. Horretaz gain, kale nagusiak azoka hartuko du eta 30 postu egonen dira, gehienak jakiak saltzen.

Txerriarekin zerikusia duten garai tailerrak ere izanen dira eta haietan garai batean txerriak nola lantzen zen ikusteko aukera izanen da. Aurreko urteetan egin diren tripota, txistorra, xaboia eta lixiba, txantxigorri tailerrei aurten txerri hankak eta belarriak egosteko tailerra gehituko zaie. Haien egosi, frijitu eta gero saldu egingen dira. Gainontzekoak borondatearen



Katrin Ginea eta Maribel Luis Txistor egunaren aurkezpenean.

truke dastatzeko aukera izanen da. Buruhandiek erabiltzeko moduko birrikak ere prestatuko dituzte. Hori guztia jolas parkearen inguruan izanen da. Handik gertu, elizako berdegunean, zotlan euskal txerriak ikusteko aukera izanen da.

Pintxo lehiaketa

Txistorra lehengai hartuta sukaldarien irudimena eta trebezia neurtzeko aukera eskaintzen du pintxo lehiaketak. Aldabideelkartean prestatu beharko dituzte lehiaketara aurkeztutako gutziaren 5 ale. Haien baloratuko dituen epaimahaiak

Egitaraua

10:00etan Txistor egunaren hasiera eta azokaren irekiera. Herriko txistularien kalejira.
11:00etan Nafarroako trikitilariak (80). Aatea plazan.
11:30ean Pintxo lehiaketaren hasiera.
15:00etan Herri bazkaria. Alubi jatea.
18:00etan Nafarroako trikitilariak.
19:00etan Aatea.

Herri bazkaria

Helduek 16 euro ordaindu behar dituzte txartelatik eta haurrek 9. Menua: babarrunak sakramentu guztiekin. Egunean bertan erosi litezke txartelak.

gastronomian adituek osatzen dute: Adolfo Larraza (Olaberri jatetxea), Moises Leranoz (Bilboko Gran Donibaneko sukalde nagusia), Javier Diaz (Alhambra sukalde nagusia), Pilar Idoate (Europa Jatetxea) eta Jesus Mari Astrain (Nardi eta gastronomi kofradien federazioen ohorezko kofradea). Jatetxe gehiago aurkezteko saria handitu egin du udalak 1.000 eurokoa izanen da.

SAKANA

40.000 bisitarietatik gertu

Gero eta jende gehiagok jotzen du www.guaixe.net atarira Sakanako berri jasotzeko. Irailean 39.518 bisita jaso zituen Bierrik fundazioaren webguneak, 1.317 bisita eguneko. Sareko eskaintza zaballean bere tokia egin du Guaixek.

Sare sozialetan ere Sakanako albistari digitalak jarraitzaileak biltzen segitzen du. Bierrik fundazioaren Facebook profilak 1.141 lagun ditu. Haren bidez albisteak, lehiaketa eta publizitate oharrak zabaltzen dira. @guaixe Twitter kontuak, bestalde, 845 jarraitzaile ditu. Twitterreko euskarazko jarduna jarraitzen du www.umap.eu-k. 4.653 twitterlari aktibo daude gaur egun sare horretan eta rankingaren 112. postuan dago @guaixe (gariletik 43 postu aurreratu ditu). @beleixeirratia-k, berriz, 268 jarraitzaile ditu Twitterren. Sare sozialetan elkarrekintzak ugartzen ari dira.



SAREko gero eta gehiago.

Web gunea	
Hilabetea	Bisita kopurua
Ilbeltza	27.410
Otsaila	23.456
Martxoa	27.588
Apirila	26.123
Maiatza	32.639
Garagarzaroa	39.743
Iraia	39.518

@guaixe Twitter kontua	
Data	Jarraitzaileak
2012-12-21	400
2013-02-15	502
2013-04-11	604
2013-07-24	701
2013-09-06	800

Uharte Arakil

Euskal festaren atean

Bihar, 11:00etatik aurrera, Guk gureak elkarteak antolatuta

Bi urtean behin kultur astea antolatzeko asmoa azaldu dute. Beti ere, elkarrearen hiru helburuak hedatu asmoz: memoria historikoa berreskuratzea, euskal kultura bultzatzea eta euskal nortasuna babestea. Asteartean Nafarroan 36a ta gero gertatutakoez aritu zen Patxi Abasolo.

Guk Gureak elkarteak kideek Espainiako ikurren "inposizioa" salatunahi izan du. Gobernu Ordezkaritzaren aginduz Espainiako banderajarri beharko du udalak. Agindua "Uharteko Udalean banderarik ez jartzeko akordioaren kontra egiten du". Nabarmendu dutenez: "Uhartean Espainiako banderak ez du gehiengo ordezkatzen". Banderaren horren "ezarpena asimilazio saiakera" delagaineratu dute. Bihar "herriarrok gure ikurrei omenaldia egingo diegu gure nortasunaren alde eginez".

Egitaraua

11:00etan Dianak.
12:30ean Kalejira.
12:30ean Ikurrei omenaldia.
13:30ean Kantu Poteoa Donostiako kantujira taldearekin.
14:30ean Herri bazkaria.
17:00etan Zirko tailerra.
18:30ean Kituka Burundi taldearen kontzertua.
19:30 Auzatea.
20:00etatik 22:30era Dantzaldia Ttantaka taldearekin.

*Puzgarriak egun osoan zehar egongo dira.

Sakana Euskara Bidean

Gaur, 20:00etan, udaletxeko bilkura gelan Sakanako euskalkien berri ematen duen dokumentala ikusteko aukera izanen da. Hainbat herrietako biztanleak agertzen dira bideoan, tartean uhartear bat ere.

Amaya
Okindegi-gozotegia

ARAIA 945 314 572

ALTSASU

- Lantegia: Texeria aldapa 948 562 205
- Zumalakarregi plaza 948 468 026
- Amaia supermerkatua
- Otadiako Kristo Deuna plaza, 19. 948 562 185
- Gipuzkoa 4
- San Juan kalea 50. 948 564 053
- Netto 659 288 401

okindegia - gozotegia - kafetegia - ogia - pastelak - kafea - txokolatea - pastak - bonboiak...



ALTSASU



OLAZTI

948 468 755



ETZARRRI

948 461 660

SAKANA

Parlamentari sozialisten jendaurreko bulegoa zabalik

Maite Esporriin parlamentaria hilean behin Altsasuko Talde Sozialistaren egoitzan izanen da informazioa eman eta gaiak jasotzeko

Gertuko Bulego Parlamentariak izena eman dio PSNk Iruñean, Tuteran, Tafallan, Lizarran, Zangozan, Beran eta Altsasun aurrera eramanen duen ekimenari. Talde parlamentari sozialistako kide bana izanen da bulego bakoitzean eta herritarrek informazioa eskatu edo intereseko edozein gai mahai gainean jartzeko aukera izanen dute. Parlamentariak momentuan bertan ezin badute erantzun, “beharrezko gestioak

eginen dituzte gerora interesatuari jakinarazteko”.

Herritarrengandik gertuago egon, parte hartzea sustatu eta garrantasun handiagoa izan. Hiru oinarri horietatik abiatuta hasi nahi du Roberto Jimenez idazkari nagusi sozialistak “birsorkuntza politikoko etapa berria”. Ildo horretan kokatu du alderdiaren diru sarreraren eta gastuen eta alderdiko erakundeetako ordezkarien diru sarreraren berri alderdiaren web orrian ematea.

Eta bide horretan herenegun Altsasun estreinakoz zabaldu zen



Maite Esporriin erdian, sozialista sakandarrez inguratuta.

bulegoarekin “alderdi gardena-goaren eta hurbilagoaren eredu izan nahi du”. Alderdikide sakan-

darrek ekimenaren berri zabalduko dute jendeari aukera horren berri emateko.

Altsasuko egutegia

Lastailaren 9an, azaroaren 4an eta abenduaren 16an, 17:00etatik 19:00etara.

Altsasuz

Esporrinek aurreratutako udalean hutsik duten zinegotzi aulkia betetzeko bidean dela, “lege-gintzalditik gelditzen den urte eta erdian herrian eta haren alde lan garrantzitsua egiteko”.

»



Herrira-ren alde

Makina bat sakandarrek parte hartu zuten asteburuan Herrira-ren kontrako sarekada salatu eta euskal presoek eskubideak aldarrikatzeko. Ostiralean lantoki eta plazetan izan zen, Gobernu Ordezkari-tzak bestelako mobilizazioak debekatu zituelako. Arbizun Fran Baldari harrera egin zioten. Larunbatean, atzera ere, plazetan izan zen aldarri bera. Bilbora sakandarrak asko joan ziren. Bestalde, Ospa egunaren kontura Guardia Civilaren Iruñeko komandantziara deklaratzera deituak izan ziren bi altsasuarrak deklaratzera ukatu ziren.

»

Autobietako zoruaren ezaugarriak eta egoera aztertuko dituzte

Sustapen Departamentuak aurtan Nafarroako errepideen 408 kilometroko bide-zoruaren ezaugarriak eta egoera aztertuko ditu, bideei buruzko informazio eguneratua izateko eta beharrezkoak diren zaintza-lanak burutu ahal izateko. Jarduera 2002tik osatzen ari diren errepide-sarearen inbentarioa eguneratzeko proiektuaren barruan egingen da. Helburua da hainbat urteetan Nafarroako errepide-sareko 3.800 kilometroak berrikustea.

Sakanari dagokionez, Leitza-rango Autobietan (A-15) osotasu-

nean (28, 61 km) eta bi norabideetan, zoruaren itsaspena nolakoa den begiratu da. Zehazki, Zeharkako Marruskadura Koeffizientea aztertuko da. Bide-segurtasunari buruzko azterlanetan funtsezko parametroa da, batez ere istripuen estatistiketan euria egitean errepidetik ateratzea edo talkak gertatzea ezohiko maiztasunez agertzen diren guneeetan. Horretarako kamioi bat erabiliko dute.

Bestalde, Sakanako Autobian (A-10), Irañeta eta Uhartea Arakil artean, sortu berri diren edo erregiratuta ez dauden aldaketak

jasan dituzten bide edo tarteen ezaugarri fisiko eta geometrikoak aztertu dira. Neurri geometrikoan ibilgailu batekin egiten da lan hori. Hiru kamera digital ditu jarrita aurrean eta atzean. Kamera horiek errepidearen eta inguruaren irudiak hartzen dituzte. Ordenagailu batekin irudiak bildu eta paketatuta egiten ditu, eta ibilbidearen abiadurara egokitzen ditu. Beste ordenagailu bat audio-aren grabazio digitalaz arduratzen da, eta hirugarren ordenagailu bat errepideko ezaugarri geometrikoak hartzeko baliatzen da.

Etxarri Aranatz

Herrira-ren kontrako operazioa salatu du udalak

Bilduk eta NaBaik aurkeztutako mozioan jasodenez, “operazio politziala eta atxiloketak herri honen gehiengoari eta konponbide prozesuari egiten zaizkion eraso gisa ulertzen ditu”. Mugimenduaren kriminalizazioa salatzearekin batera, euskal presoek Euskal Herri-ratzea eta haien eskubide guztiak aldarrikatu zituen, giza eskubide guztien errespetuaren alde dagoen bezalaxe. Mozioan ere eskatzen da gatazka politiko eta armatuaren parte diren gobernu, alderdi eta eragile guztiei prozesuari etengabeko ekarpena egin eta jarrera erakitzearen bitartez laguntzea. Bi koalizioen aldeko bozarekin eta PPren kontrakoarekin onartu zen mozioa.

Pintaden inguruan

ETAk hildako Jesus Ulaiarren etxean eta beste hainbatetan ETA gora-tuz pintadak agertu ziren irailaren 8an. Juan Antonio Extremerazinegotzi popularrak udalak pintada horiek gaitzesteko eskatuz mozioa aurkeztu zuen, “gizartearekiko eta, batez ere, terrorismoaren biktimekiko izugarritzko errespetu falta delako”. ETAk hildako Ulaiarren



Etxarri Aranatzko aurreko udal osoko bilkura batean, bozketa egiteko garaian.

etxean egindako pintada “izugarritzko iraina dela pentsatzen dugu, bai bere familiarendako, baita bere lagunendako ere”. Extremerak adierazi zuen ETAren aldeko halako ekimenak kondenatu beharko lirakeela. Horretaz gain, Jesus Ulaiarren senide eta lagunak erakundeen babesa eta talde guztien errespetua izan beharko luketela eskatu zuen.

Taldean iritzia

Bildutik salatu zuten “alderdi popu-

larrak Sakanako tokiko administrazioen eguneroko lana oztopatzeko eta kriminalizatzeko helburua duen estrategia batean buru belarri murgildua dabilela, alderdikeria eta oportunismo politiko hutsean oinarrituz protagonismoa bilatzeko”. Alkatetzako taldeetik adierazi zenez, Ulaiarren etxean agertutako margoketen berri izanda astelehenean bertan udal langileei gertatutakoaren berri eman zitzaizela, eta margoketak dagoeneko ezabatuak izan zirela egiaztatu

ahal izan zutela besterik.

Koalizioak popularrei leporatu zuten mozio horrekin bere “miseriak” estali nahi izatea. Udal bizi-tzan eta etxarriarren egunerokotasunari erantzuten dieten gaien kudeaketan popularren jarrera “hutsaren hurrengoa” zela nabarmendu zuten. Pintaden inguruko “azterketa oportunistaz aparte”, popularrek “nahita ahazten” dituztela Guardia Civilak hildako Lakuntzako zinegotzi Mikel Arregi edo gerrako eraildakoak, edo tor-

turaren kontrako mozioak arbuia-tzen dituztela.

“Gatazkaren ondorioei heltzea eta gaitzestzea, eta normalizazio politikoaren lanketa” egin nahi den garai politiko berrian gaudela nabarmendu zuten. Horregatik, “biktima guztien onarpena lortzearen helburuarekin lan egitea beharrezkoa ikusten dugu, inor bazter-tugabe. Beharrezkoa da konpromisoak hartzea, eta sufrimendu guztiak onartzeko borondatea erakustea, zauriak ixteko eta, bai egia, eta bai biktima guztiei eta gizarte-ari zor zaion onarpena eta ordaina bermatzeko”. Horretarako elkarrizketa derrigorrezko lanabesa dela nabarmendu zuten. Bilduk jarrera erakitzailea eskatu zion PPri.

NaBaitik irakurketa partidisten kontra azaldu ziren eta gaia orokortasunean aztertu beharraz. Biktima guztiendako aitortza eskatzearekin batera, kolore guztieta-ko pintadak kentzearen alde agertu ziren koalizio kideak. Bi koalizioen kontrako bozarekin eta PPren aldekoarekin mozioak ez zuten aurrera egin, gaia orokortasunean aztertu zelako.

» Etxarri Aranatz

Plaza mikologikoa eta botanika parkea bihurtuko da

Igantxan, 10:00etatik 18:00etara Etxarri Aranatzko plazan

Kolpean egon den, ez denegon. Goian ateratzen diren bakarrik. Nahikoa hezetasunik dagoen edo ez. Beroa behar dela. Euria... Askok dira onttotara joan eta joaten direnak, edo jaten dituztenek, egun hauetan ahotan izan dituzten arrazoiak. Baina gure basoetan, zorionez, dena ez da onttoa. Ziza gehiago ere badaude eta aberastasun hori ikusi eta ezagutzeko aukera emanen dute Hartzabal elkarrekin eta Mikologia eta Landareen taldeak. Zizekin batera, herriko landaretzaren laginak ere izanen dira. Gainera, ikusitako ziza motetako batzuk dastatzeko aukera ere izanen da Iturri Eder, Leku Ona, Larraza, Iratxo, Xapatero eta Derry tabernetan. Erakusketa Jose Luis Eseberriri eta Bixente Garziandiari (Barze) eskainia da, mikologiaren eta botanikaren zaletasuna sustatu zuten bi gizonei.

»



Gazta txapelketako epaimahaia.

Ibarbordarendako Sakanako gazta txapelketa

Ferietan, eta jendea plazan jarritako artisau postuen artean zebilen bitartean, X. Sakanako gazta txapelketako epaimahaia lehiaketara aurkeztutako zortzi gaztak dastatzen egon zen. Erkuden Imaz Larreak (Larrañeta elkarrekin), Pedro Zabaleta Segueinek (artzaina), Unai Jaka Carrerak (Karrikestu elkarrekin) eta Erkuden Urteaga San Martinek (Etxe-Azpi elkarrekin) hartu zuten gaztak dastatzeko ardura, baita sariak emateko ere. Lan horretan Idiazabal jatorri izendapeneko Jose Ramon Agirianoren aholkularitza izan zuten.

Sariak

1. Ibarborda, Unanu.
2. Ezkurra Eskisabel, Izurdiaga.
3. Balda, Artola. Unanu.

Egutegia

Ferietan salgai jarri zuten makina bat herritar erdi bilixkorriko agertzen den egutegi bat. Hainbat erakundeetako kideak agertzen dira 12 hilabeteak ilustratzen dituzten argazkietan. 10 eurotan dago salgai egutegia eta irabaziak presoen senideendako eta lagunen bideratuko dira.

SAKANA

Ostegunean hasiko da 35/02 sumarioko epaiketa

Duela 11 urte abiatu zuen auzia Baltasar Garzon epaileak

Lastailaren 17tik aurrera Batasunako kide ziren 36 euskal herritar epaituko dituzte Espainiako Auzitegi Nazionalan. Herriko tabernen bitartez ETA finantzatzea

leporatuta epaituko dituzte. Auzipetuen artean daude Juan Kruz Aldasoro eta Jaione Intxaurrea. Etxarriarrarendako 10 urteko espetxe zigorra eskaera egin du fiskaltzak eta 8 urtekoa arbizuarrarendako.

Gainera, 110 herriko taberna ere epaituko dituzte "erantzule zibil" izatea egotzita. Baltasar Garzon aginduz itxi zuten 2002ko agorrilaren 26an Altsasuko Herria Eginez elkarrekin. Joseba Garmendia, azkenik, ez dute epaituko.



» Altsasu

Edukiontzi eta auto erreketak salatu ditu alkatetzak

Bateko gauean 8 edukiontzi erre zituzten. 2koan, berriz, beste 28 izan ziren erre zituztenak. Azken gauan erretako edukiontziatik gertu zeuden autoak ere kixkali-ta gelditu ziren eta garren berotasunak gertu zegoen denda bateko kristal handia hautsi zuen. Erretako 36 edukiontzi gutxieneko balioa 6.300 eurokoa da. Ospa Egunaren ondoren, lau edukiontzi erre ziren. Horiek dira azken urtean erre direnak. Guardia Civilak ikerketa abiarazi du.

Alkatetzak duen Bildutik adierazi dutenez, "azken hilabeteetan gure herria jasaten ari den enegarraren eraso da ekintza hau". Bilduko kideen iritziz, "egileak gure



Sakanako ezker abertzaleko kideek agerraldi jendetsua egin zuten ostiralean.

herrian erabateko zigorgabetasunarekin aritu dira. Aski da esateko garaia da". Bilduk Altsasuren kontrako halako erasoak onartzeko prest ez dagoela adierazi du.

Gehiago

Altsasun azken hilabeteetako gertaerak "gure ezinegon sortu dute eta horiek salatzea da gure asmoa". Aurreko astekeko edukiontziaren erre-

ketaren inguruan adierazi zuten inork ez zituela aldarrikatu, hala ere ondoren egin ohi den moduan. "Ziurtatu ezin badezagere, uste dugu ekintza hauen helburua ez dela ezer aldarrikatu edo salatzea". Haien susmoa da "antzeko egoerak gertatu izan direnean bezala, elementu parapolizialen eskua dagoela atzean".

Ezker abertzaletik guztiari "oso usain txarra hartzen diogu eta helburu argi bat ikusten diogu: aldarri legitimo baten eta horren alde lan egiten duten pertsonen kriminalizazioa". Ziurtatu zuten, "gure aldarri eta helburuetan tinko jarraituko dugu". Eta gaineratu zuten adierazpen askatasuna eta lan politikoa egiteko eskubidea altsasuar guztiek defendatu behar dituzten ideiak direla. "Ezin dugu onartu inork mehatxatua eta susmopean jartzea oinarriko eskubide zibil eta politikoa praktikan jartzeagatik".

SAKANA

Errepresioaren kontra plaza inguratzeraz deitu dute

Bihar, 13:00etan, Altsasuko plazan

Ospa eguneko "neurrigabeko okupazio militarra" eta ondorengo gogoan, "Sakanak sufritzen duen errepresioa eta poliziek erabiltzen duten bortizkeria eta gehiegikeriekin bukatu beharra dagoela" adierazteko deitu dute bihar mobilizazioa. Altsasuko plazatik, atzera ere "indar okupatzaileek gure herrietatik alde egin dezatela, inongo indar polizial errepresiboren presiorik gabe bizitzea" eskatuko dute.

Errepresiorik ez! Aldehemendik! Utzi bakean Sakanan leloa duen mobilizazioan parte hartuz deitu du Ospa mugimendua. "Lastailaren 12an ezer ospatzeko ez dugula ozenezan eta gure herriragerra egitera etorri den Guardia Civila alde egiteko eskatuko dugu". Mugimendutik gaineratu dute "Ospa egunaren erakutsitako borroka eredu garrarekin jarraitzea ezinbestekoa" izanen dela, "azken egun, aste, zein urteetan sufritu dugun errepresioarekin bukatu nahi badugu".

Txistor egunaren etorri gure menua probatzera!

Eguneko menua
Menu berezia
Kafetegia eguneroko zabalik

Olatzea
Landa Handi • • • • • Hual Rural

Info@hotelolatzea.com • www.hotelolatzea.com
Errota kalea z/g • Tel.: 948 46 18 76 • Fax: 948 46 18 77 • 31829 Arbizu (Nafarroa)

ARBIZUKO TXISTOR EGUNA
2013 URRIAK 13

EGITARAUA

10:00 TXISTOR EGUNAREN HASIERA ETA MERKATUAREN IREKIERA
10:00 HERRIKO TXISTULARIAK HERRIAN ZEHAR
11:00 NAFARROAKO TRIKITILARIAK
11:00 AATE PLAZAN
11:30 PINTXO LEHIAKETAREN HASIERA
15:00 BAZKARI HERRIKOIA PLAZAN. Tikitak ohiko tokietan salgai.
18:00 NAFARROAKO TRIKITILARIAK
19:00 AATE

EGUNEAN ZEHAR: EUSKAL TXERRIAK, ZOTOLA, TXISTOR ETA TRIPOTA EGITE ERAKUSKETA, ARGAZKI ERAKUSKETA, LIXIBA ETA XABOIA, TXANTXIGORRI EGITE ERAKUSKETA, EHOZIRIAK, SENDABELARRAK...

ANIMATU ETA PARTE HARTU

Iaguntzaileak
YUSA CASTELLO • URSULA WILSON
babesleak
Arbizu • LOR.ES.
LAKET
can | X

TXIRRINDULARITZA

URTASUN ETA VERDUGO TXINAN: Gaurtik igandera bitartean Beijingo Tourra jokatu da. Euskaltel lehiatuko den azken proba

izango da. Pablo Urtasun urdiaindarrak eta Gorka Verdugo etxarriarrak talde lanarekin azken pedalkadak emango dituzte.

Pilota



Arbizuarrak Mendizabal du arerio.

Ezkurdiak lau t'erdian egon nahi du

Lau t'erdiko aurretikoa jokatu du gaur Aitor Mendizabalen kontra, Bergaran

Aurki hasiko da lau t'erdiko Pilota Txapelketa. Aspek eta Asegarek ez dute oraindik txapelketa aurkeztu, baina euren pilotariak aukeratzeko kanporaketak antolatzen ari dira. Horrela, Joseba Ezkurdiak aurrelari arbizuarrak lau t'erdian toki batizan dezake, baina horretarako Aitor Mendizabal menpean hartu behar du. Kanporaketa gaur jokatu da, Bergaran, 22:00etan (ETB1). Ondoren Titin eta Rezustaren kontra ariko dira Jaka eta Zabaleta. Aitor Mendizabal igandean Eibarren Aritz Lasa 22-14 irabaztekin dator. Sasoiko dago, baina Ezkurdiak aurrera egiten duen eta kaiolan ikusten dugun.

MURGIONDO MUNDIALERA

Urriaren 13tik 19ra arte jokatu da 8. Trinkete Mundiala, Urugayako Jorge Larrouy trinketearen. Espainiako Selekzioan 6 pilotari nafar daude, tartean Koldo Murgiondo pilotari etxarriarra. (Ikus informazio gehiago 11 galderak atalean).

Mendi txirrindularitza

Zaragozako eraztun berdea osatzera

Urriaren 27an, Zaragozan

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak, Burunda Txirrindularitza Taldearen laguntzarekin, mendi txirrindularitza edo BTT irteera antolatu du, urriaren 27rako, Zaragozan. 32 km-ko ibilbidea izanen da, zailtasunaren aldetik erraza. Zaragozako eraztun berdea deiturikoa osatzea da erronka.

IZENA EMATEKO

Bertara joateko autobus zerbitzua antolatu da. Txirrindulariek Zaragozan bazkalduko dute, baina bazkaria norberaren kontura izanen da. Autobusa goizeko 7:00etan aterako da Altsasuko autobus geltokitik. Izena emateko Mank-eko kirol zerbitzura hots egin behar da (948 464 866 edo kirolak@sakana-mank.com), urriaren 14a baino lehen.

>>

Zubieta Bizkaiko Bost t'erdikoan

Oinatz Bengoetxearekin bikotea osatuta, Irujo-Beroiz izanen ditu aurkari bihar Bilbon

Bilboko Bizkaia pilotalekuak Bizkaiko Bost t'erdiko Torneo hartuko du. 6 bikote lehiatuko dira, eta nobedade moduan bikoteak sortzerako orduan Aspe eta Asegarek euren pilotariak nahastea erabaki dute. Horrela, Aspek Aitor Zubieta etxarriarrak, torneoako sakandar baka-rrak, Asegareko Oinatz Bengoetxearekin osatuko du bikotea. Gainontzeko bikoak ondokoak dira: Irujo-Beroiz, Olaizola-David Merino, Pablo Berasaluze-Barriola. Aitor Zubieta eta Bengoetxea VI.a bihar sartuko dira lehiari, larunbatean. Irujo eta Beroiz izanen dituzte aurkari. Partida NITRO katean ikusi ahal izango da. Irabazleek igandean Aimar Olaizola eta David Merino izanen dituzte arerio (ETB1).



Motoziklismoa

2014ko Mundialean lehiatuko da Mariñelarena


TECH 3 ESKUDERIA FRANTZIARRAREKIN KONTRATUA SINATU DU 2014KO MUNDIAL OSOA KORRITZEKO

Alex Mariñelarena pilotu irurtzundarrak 21 urte bete zituen larunbatean eta primerako oparia jaso zuen: 2014an Munduko Motoziklismoko Abiadura Txapelketa denboraldi osoan aritzea. Hori ahalbideratuko dio Tech 3 eskuderia frantziarrak. Aipatu eskuderiak Irurtzundago pilotua hurrengo denboraldirako kontratatu du, Moto 2 mailan aritzeko.

Egindako lanaren ordaina

Mariñelarenak Blusens Avintia taldearekin Mundialeko azken bi probatan egindako lana ez da oharkean pasatu. Alcañizeko zirkuituko Mundialeko proban, 17. postutik ateratu zen Mariñelarena eta 14.a bukatu zuen lasterketa. Mundialean 2 puntu lortu zituen, nafar batek Mundialean puntuatzen duen lehen aldian, eta taldearen helburua –lasterketa bukatzea– goitik bete zuen. Ondorioz, Aurtengo Mundialean

Asteburuan Malasian



Asteburuan Munduko Abiadura Txapelketa Malasiako Sari Nagusian ariko da Alex Mariñelarena Blusens Avintiarekin, Sepang zirkuituan. Asteburuan hartu zuen Malasiarako bigarren etapa. Moto 2an Mundiala dute jokoan Scott Redding liderrak (215 puntu) eta gero eta gertuago dagoen Pol Spargarok (195 puntu). Mariñelarenaren helburua etapa despeditzea da. Te- le 5 katearen bitartez jarraitu ahal izango da proba.

geratzen diren 4 lasterketatan Blusens Avintiarekin segituko du Alexek, eta hurrengo urterako kontratua sinatu du Tech 3-rekin.

Irurtzundarra pozez lehertze ar dago. "Betetako ametsa da" dio. Bi aldeek ostiralean itxi zuten akordioa.

Tech 3

Tech 3 eskuderia 1990 urtean sortu zen. Yamaha eskuderia ofizialeko satelite bat da, hurbilekoa. 2 pilotu ditu MotoGp'n eta beste bi Moto2n. Alexek Danny Kent ordezkatu du eta Marcel Schrotter pilotua izango du taldekide.

Aizkora

Nazabal, favorito

NAFARROAKO TXAPELA JANZTEKO HAUTAGAI ARGIENA DELA ERAKUTSI DU ETXARRIARRAK. BESTALDE, BIHAR EUSKAL HERRIKO LEHEN MAILAKO KANPORAKETA JOKATUKO DU

Nafarroako I. Mailako Aizkora Txapelketako kanporaketa

1.	Floren Nazabal	13:30
2.	Juanjo Lopez Azpilikueta	14:25
3.	Jon Rekondo	14:35
4.	Ruben Saralegi	15:14
5.	Antonio Senosiain	17:03
6.	Ander Erasan	17:18
7.	Donato Larretxea	17:37
8.	Oihan Larretxea	18:14
9.	Aitor Senosiain	18:22

Nafarroako Lehen Mailako Aizkora Txapelketako kanporaketa jokatuko da igandean Etxarrin. Lehiatu ziren 9 aizkolarietatik lehendabizi-

ko bostak sailkatu ziren azaroaren 15ean Donezteben jokatu den final handirako. Bi kana-erdiko, bi 60 ontzako eta oinbiko bat erdibitu behar izan zituzten, 3 txandatan.

Floren Nazabalek pronostiko guztiak bete zituen eta jaun eta jabe izan zen. Etxarriarra eroso arituzen jaioterrian (13:30). Minutu pasa atera zion Juanjo Lopez Azpilikueta-ri (14:25). Jon Rekondo, Ruben Saralegi eta Antonio Senosiain izan ziren hurrenak. Donato Larretxeak eman zuen eguneko ezustekoa.

Bihar Euskal Herrikoa



Euskal Herriko Txapelketa du buruan orain Floren Nazabalek. Bera da egungo Euskal Herriko txapelduna, eta txapel hori mantendu nahi du. Bihar, larunbatean, 18:30ean jokatu du Euskal Herriko kanporaketa, Asteasuko pilotalekuan. Lehen maila osatzen duten 12 aizkolariek lehiatuko dira: Aitzol Atutxa, Iñaki Azurmendi, Joseba Otaegi, Jesus Mari Mujika, Luis Txapartegi, Jose Mari Olasagasti, Unai Otaño, Jon Irazu, Antonio Senosiain, Jon Rekondo, Ander Erasan eta Floren Nazabal. Aizkolariek egin beharreko lana ondokoa da: 54 ontzako bi enbor, 60 ontzako bi enbor eta 72 ontzako bi enbor erdibitza. Lehen sei onenak abenduaren 8an Elgoibarren jokatuko den finalean arituko dira. Bestalde, igandean, 12:30ean, Nazabalek Mugertza II.a izango du arerio Pobesen, Urrezko Aizkolaritza Txapelketaren Ligako jardunaldian.

Gaixorik ibili da eta ezin izan zuen finalerako sailkatu. Nahiz eta garai-

pena lortu, uste baino gehiago sufritu zuela adierazi zuen etxarriarrak.

Tel.: 948 562 829
faxa: 948 563 002

Unamuno
ALTSASU

OILATEGIKO ANIMALIEN PENTSUA 10KG.KO POLTSETAN

ANTSOTENEA
denda

Makailua
Konjelatuak

Tel.: 948 500 388
Foru enparantza 1
IRURTZUN

PORTUKO okindegia
Ogiaren artisauak

Altsasu: 948 563 822
Etxarri Aranatz: 948 460 988
Urdiain: 948 563 763

Atletismoa

13. Sakanako Herri Lasterketan izena ematea zabalik

Urriaren 26an jokatu da, 17:00etan, Etxarri Aranatzan

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak, hainbat babesleren laguntzarekin, 13. Sakanako Herri Lasterketa antolatu du, urriaren 26an, Etxarri Aranatzan. 17:00etan proba nagusia jokatu da eta aurretik, 16:00etan, kategoria txikiko lasterketak.

Izena ematea zabalik dago. Kategoria txikikoek, juniorrek barne, dohainik dute parte hartzea, eta aurretik edo egunean bertan eman ahal dute izena. Baina proba nagusian parte hartu ahal izateko aurretik eman behar da izena, derrigor.

WWW.KIROLPROBAK.COM

Web gune honetan eman behar da izena. Urriaren 15a baino lehen izena ematen dutenek, merkeago izanen dute (txip horia dutenek 6 euro eta alokairuzko txipadutunek 7 euro). Aldiz, ondoren izena ematen dutenen kasuan, txip horia dutenek 10 euro pagatu beharko dute eta alokairuzko txipadutenek 11 euro. Urriaren 25era arteko epea dago izena emateko. Antolakuntzak argi utzi nahi du helduen probakoek ezingo dutela probaren egunean bertan izena eman.

Botxak



Goian Beraza eta behean Jordano.

Jordano eta Beraza txapelak

Banakako Botxa Txapelketako finalak

Helduak: Alejandro Jordano 15 - Mikel Golderazena 13
Haurrak: Ane Beraza 15 - Aitor Irujo 12

Larunbatean jokatu ziren, Irurtzungo Iratxoelkarteko botxategian, Banakako Botxa Txapelketako finalak, helduen mailan eta haurren mailan. Giropolita izan zen eta ikusmina, handia. Helduetan, Alejandro Jordano nagusitu zitzaion Mikel Golderazena-ri, eta haurretan, Ane Berazak hartu zuen menpean Aitor Irujo. Txapeldunek urdaiazpikoa eman zuten opari. Banakako Botxa Txapelketako finalarekin aurtengo botxa denboraldia despeditu du Iratxo elkarteak. Guztira 104 lagunek hartu dute parte ekintza hauetan.

Automobilismoa

Arakistain ziztu bizian Urbasan

AITOR ARAKISTAIN IZAN ZEN AZKARRENA 33. URBASAKO IGOERAN (3:28:477). SAKANA MOTORPORTEK ANTOLATU ZUEN PROBAN DELFIN GOIKOETXEA IZAN ZEN LEHEN SAKANDARRA (3:54:648)

33. Urbasako igoera. Sakandarrak.

1.	Aitor Arakistain (Silver Car S2)	3:28:477
14.	Delfin Goikoetxea (Promo Racing)	3:54:648
15.	Arkaitz Irigoien (R11 Turbo)	3:56:182
26.	Iban Lopez de Goikoetxea (R5 Turbo)	4:10:858
42.	Mikel Mendinueta (AX GT)	4:33:025

Garikoitz Goñik (R11 Turbo) eta Iker Palacios (205 GTI) proba utzi behar izan zuten.

Iazko etenaren ondoren 33. Urbasako Igoera jokatu zen larunbatean, Sakanako Motorsport klubak hainbat babeslerekin batera antolatuta. Olaztitik Urbasara igotzea zen erronka, 5,720 km osatuz. Entrenamendua eta bi manga zeuden jokoa. 71 pilotu zeuden izena emanda eta horietatik 65ek hartu zuten parte, tartean 6 pilotu sakandarrek.

Eguraldia ez zen ziurra eta hori nabaritu zen. Nahiz eta bezperatik eta goiz goizetik zale asko hurbildu, ez zen bestetan adinako jende uhaldetzarik egon. Entrenamenduetan eguraldiak agoantatu zuten baina bi mangetako azken txanpan zaparrada bota zuten.

Pilotuak saltsan

Pilotuak gustura topatu genituen, saltsan. "Urbasako igoera fama handia dauka eta polittena da" zihoen Etxeberriko Garikoitz Goñi pilotuak. Sakanako Motorsport taldeko kide Iban Lopez de Goikoetxea pilotu olaztiarra ere iritzi



Iban Lopez irteteko prest.



Palacios, Lopez de Goikoetxea, Goñi eta Irigoien, entrenamenduen ondoren.



Delfin Goikoetxea, bere auto ikusgarriaren ondoan.

berekoa zen. "Proben artean politenetakoa izango da, seguru. Sekulako portua da, kristoren karrera. Gainera, ikusteko toki asko dago, jendea, giroa... dena. Baina pilotu garen aldetik korritzeko okerre-na etxeko proba da. Etxean beti urduriago ateratzen zara, presio gehiagorekin" gaineratu zuen. Arkaitz Irigoien bakaikoarra entrenamendua bukatuta harra-patu genuen. "Ongi joan da entrenamendua, baina lehenengo aldiz entrenatuko banu bezala sentitu naiz. Oso berde" aipatu zigun. Aldiz, Iker Palacios bueltaka zebilen entrenamendua eta gero, enbragean arazoak zituelako. Delfin Goikoetxea eroso zebilen entrenamenduetan eta baita Mikel Mendinueta arbizuarra ere.

Pilotuek asfalto lehorrean, bustian eta euri zaparradapean aritu izan behar zuten. Eskuderia Eibar taldeko Aitor Arakistainek (Silver Car S2) sorpresa eman zuen, proba irabaziz (3:28.477). Atzetik sailkatu ziren Joseba Iraola (Silver Car S2, 3:29.417) eta Arkaitz Ordoki (Silver Car S2, 3:32.559).

Delfin Goikoetxea iturmendi-rra izan zen lehen sakandarra (Promo Racing). 14.a iritsi zen helmugara (3:54.648). Arkaitz Irigoien oso gertu izan zuen, 15.a sailkatu baitzen (3:56.182). Tamalez, Iker Palacios eta Garikoitz Goñi ezin izan zuten proba bukatu. Proba ez zen inolako istripurik izan.

Pilota

Pilota eskola Lakuntzan

Ander Lopetegik gidatzen du eta 22 gaztetxok eman dute izena

Ander Lopetegi pilotari afizionatu lakuntzarrari esker sortu da pilota eskola Lakuntzan. Lopetegi Nafarroako Pilota Federazioarekin jarri zen harremanetan, eta bertatik jaso du beharrezkoa izan duen laguntza. Horretaz gain, Lakuntzako Udalak frontoia erabiltzeko eskariari baiezkota eman zion.

Ekimenak erantzun bikaina izan du. 5 eta 11 urte arteko 22 gaztetxok eman dute izena. 3 multzotan banatu dituzte eta asteartean eta ostegunetan entrenatuko dute: 6 urtera artekoak 17:30etik 18:15era, 7-8 urte artekoak 18:15etik 19:15era eta 9 urtetik gorakoak 19:15etik 20:15era. Helburua haurrak pilotan hastea da, entrenatzeko sistema berri eta entrenigarri baten bidez.



Urbasako igoerako zenbaki sarituak

2809
841
799

Zorionak!

IKASTARROAK

DANTZARIMA
Hasiera: urriak 14. Astelehenero, 18:30etatik 20:00etara.
16 urtetik gorako pertsonel zuzenduta.

KONTU-KONTARI TAILERRA
Hasiera: urriak 17.
Ostegunero goizez, 10:00etatik 11:30era.
Arratsaldez, 18:30etik 20:00etara.
Nobentzat: 3 urtetik 99 arte.

MUGIMENDU TAILERRA
Hasiera: azaroak 5
Asteartero goizez, 10:00etatik 11:30era.
Arratsaldez, 18:30etik 20:00etara.
Nobentzat: 3 urtetik 99 arte.

RISOTERAPIA
Azaroak 23, larunbata
Goizez, 11:00etatik 13:00etara
Arratsaldez 16:00etatik 18:30era

REIKI sarbideak. 2.maila.
Azaroak 16, larunbata
Goizez, 10:00etatik 13:00etara
Arratsaldez, 16:00etatik 19:00etara

848 479 119
646 720 133
amaitaldea@gmail.com

Kordobako gerrillari bat **Adan Gaitan** en eleberriko protagonista

Bere anaia Felixekin *Martires de una esperanza. República, Guerra y Represión en Pedro Abab* (Egileen edizioa, 2009) liburua argitaratu zuen Juan Manuelek. Kordobako sorterrian errepublika garaian eta aurreko eta ondorengo urteetan jazotako gertaerak jasozituzten liburu hartan. Anaiek jasotako dokumentazioaren artean Rafael Canalejo Ruiz gerrillariari buruzko espedienteak zegoen. Hura, eta informazio gehiago hartuta, idazle arbizuarrak Canalejo-ri buruzko nobela idatzi du: *Yo, el guerrillero* (Palibiro, 2013).

Nobela historiko edo historia nobelatu horretan Adan Gaitanek ia zinematografikoki garai haiek ekartzen ditu, gerrillariaren beraren eta bere gertuko ahotsen bidez, baita orduko testuak eta agiriak gehituz ere. Garai hartako giroaren berri jasoko du irakurleak.

Liburuaz


Adan Gaitanek Canalejo gerrillariaren bizia kontatzen du: nola sartu zen gerrillan, hura nola zegoen antolatuta, nolako zen, gerrillariaren bizimodua, nolakoak ziren haiei laguntza ematen zieten pertsonak, nolako zen jende arruntaren bizimodua. Garai hartako gauza guztiak.

Protagonista gerrillaria zenez eta etengabe batetik bestera mugitzen zenez, hark begi aurrean izan zuena jaso behar izan zuen idazleak. Horretarako Kordobara zubietan eta Aste Santuetako oporetan joan da, "zein lore, landare, arbolak, usainak... guztia kontatzeko". **Beleixe Irratian (FM 107,3)** aurreratu du eguberrietan asteren bat joanen dela Kordobara eta Sevillara, aurkezpenen bat egiteko. Denetarako tartea hartzea espero du.

Harreraz

Jose Manuelek **Beleixe Irratian** esan duenez, "Ni irakurzalea naiz. Hego Ameriketako idazleak gustatzen zaizkit. Harako joera dudala ustedut. Gauzak hotzean eman gabe, joaten utzi". Idazteaz aletasuna duela gogorarazi du, egunero fabrikara joan behar duela.

Baina kritikoa handiena, emaztea, liburuak guztiz harrapatu zuela onartu digu. "Jendeari, orokorrean, gustatu zaio. Batzuei nobela historikoa delako. Besteiei emakumea asko azaltzen delako. Batek liburuak edozein idazle profesionalen parekoa zela esan zidan". Egilea pozik dago Artxibo Historikoko zuzendariak esan ziolako: "gerrilla Kordoban zer izan den jakiteko ezinbesteko liburuak da".



Elkarrizketa

www.guaixe.net edo gaur **Beleixe Irratian (FM 107,3)**.

Chejoven antzerkiaren ispilua

Gaur, 21:30ean Irurtzango kultur etxean El pobre de mi Tío Vania. Atikus Teatro.

eta horrek, agian, hobe ulertzeko aukera ematen du.

Anton Chejov dramaturgo errusiarraren *Tío Vania* (1897) obran oinarritutako antzezpena ikusteko aukera eskainiko du gaur Irurtzango Antzerki Zikloak.

Chejov lan horretan bizitza zaildu eta erraztu egiten duen sentimenduen balantza erabiltzen du. *Tío Vaniaren* garaia eta gurea berdinak izan daitezke: Vaniaren ezkortasuna, frustrazioa, emozio-jarioa... Errusiarraren obran agertzen diren pertsonaiek ikuslea bere giza kondizioarekin aurrez aurre jarriko ditu, adiskidetzeko. Oholtzatik pasako diren pertsonaiek krisian daude,

Atikus Teatro taldearen antzezlanaren haria

Irakasle zaharra eta bere emazte Yelena, gazte eta ederra, iritsi ondoren, etxeko lasaitasuna bukatu eta etxekoen ohiturak aldatu dira. Bisitari berriekin izanen diren harremanek egoera tragikomikoak sortuko dituzte: inbidia, frustrazioa eta hutsune sentazioa.

San Ferminetako azken egunean, hau pena nik egunean, aktoreak obretan dagoen antzoki batera joaten dira entseatzera. Langa-bezia, etxetik kanporatuak izatea, eskrupulu falta... aterako dira obran zehar, esperantza izpi batera.

bazterretik

Juankar Lopez-Mugartza

Burundako oroitzapenak

Haur txiki bat nintzenean (euria egin du ordudunik) abentura handi bat izaten zen Iruñetik Burundara bidaiatzea. Gehienetan tren hartzen genuen eta lokomotora beltzen bafaden artean ateratzen ginen Iruñeko tren geltokitik. Goizeko 8etarako edo egon behar ginen hantxe, nire aitak beti tren atera baino ordu bat lehenago egon nahi baitzuen gu gabe joango zelako beldurrez.

Behin tren adeskarrilatuz, ez dakit non zehazki, 60. hamarkadan izan zen eta gu barruan harrapatu gintuen. Uhartar Arakil aldean edo izan zela esango nuke, hain zuzen ere, 1997ko bazko astelehentxar batean beste tren bat errailetik berriro ere aterako zen leku berean edo handik gertu. Gure kasuan ez zen zauriturik egon, zitzu bizian ateratzen ginen trenetik eta hantxe egon ginen noraezean autobus bat gure bila etorri zen arte.

Beste istripuan, berriz, 90. urtearen hamarkadakoan, 18 lagun hil ziren eta 100 inguru zauriturik gertatu ere bai. Trena Bartzelonatik Hendaiara zihoan Intercity horietakobatzen, eta literaturgile ospetsu baten izena zeraman: Miguel Unamuno. Idazle gaixoak ez zuen inoiz ere imaginatuko, zer nolako oroitzapen tristeak ekarriko zizkien bere izenak han senideak galdu zituzten guztiei.

Baina gatozen harira, tren zahararen kearen eta kedarraren artean neketsu egiten zen herrira joa-

tea. Iruñetik garbi-garbi ateratzen ginen arren, Altsasura iritsi orduko arropa aldatu behar izan genuen behin baino gehiagotan. Bidaia bera ere astuna egiten zitzaidan, luzea eta bidaiariaren ogitarteko eta janari ezberdinen usain artean. Gainera, batzuk zapatak kentzera ausartzen ziren, konpartimentu itxi haietako kiratsa areagotuz. Horregatik, nik, gutxienez, trenaren alde erromantikoa alde batera utzita eta hormetan zintzilikatuta zeuden Donostiako La Kontxako irudiak politik zirela onartu arren, La Burundesa-n joatean nahia go nuen. Autobusa modernoagoa iruditzen zitzaidan tren baina.

Tren batek idazle ospetsu baten izena har dezake, (ez dakit noiz-bait Juanjo Olasagarre edo Castillo Suarez Intercity-ak hartzeko aukera izango ote dugun) egia da; baina autobus batek badu haur batentzat beste xarma berezi bat: zure herriaren edo ibarraren izena har dezakeela, kasu honetan, Burunda. Gainera nire amak beti esaten zuen bera "burundesa" zela eta, horregatik edo, La Burundesa autobusa nirea edo nire amarena balitz bezala hartzen nuen eta pozik joaten nintzen barruan, gure aberri txikiaren izena munduan zehar barreiatzen.

Egun, ikasturtean Iruñetik Gasteizera autobusez egunero joateak mila eta lauhun euro inguru gehiago balio du Bilbotik Gasteizera joateak baino. Honek autobusarekiko nire haurtzaroko oroitzapen gozoak garrastu ditu eta trenari begira gelditu naiz berriro.



- Orotariko egoitzak: eta taldekakoak.
 - Bulegoetarako bideratutako eraikinak.
 - Eraikin instituzionalak.
 - Aisialdirako plazak eta gunak.
- Tokiko gobernuko plan orokorrak, erreforma lanak irudi eta erabilpen ezberdinetarako aldatetako.

Flores
arkitektura



948 563 317
lortia plaza 1-1 · ALTSASU
arkiflores@gmail.com
www.arquitecturajavierflores.com

Enneco eskultura jendaurrean aurkeztuta



Nestor Basterretxeak Etxarri Arantzen eraikiko den Enneco, haritzaren memoria interpretazio zentrorako egin duen eskultura ostiralean aurkeztu zuen. Basterretxeak 5 metroko altuera izanen duen altzairuzko eskultura egin du. Interpretazio zentroaren sarreran kokatuko da eta haren ikurra bihurtuko da.

Basterretxeak bere lanari Enneco izena eman dio. Eskultorearen esanetan, artelanak harresi eta bihurtuak irudikatzen ditu. Harresia, Estatuaren zapalkuntza, errepresio eta sufrimenduari erreferentzia eginez. Bihurtuak, Nafarroako bizirik irauteko gaitasuna eta borondatea duelako. Horrela, zurruntasuna eta malgutasuna kontrajarri ditu, Eneko Aritzaren nafarraren izena daraman artelanen.

Egileak azalduenez, Nafarroaren "bizi-goraldiaren historia mingarria" erreproduzitzen du. "Artelan bat ez da beti balio estetikoekin egindako aurre-azterketa baten emaitza; batzutan gai batek lanaren estetika eraman zaitu eta hau kasu horietako bat da". Nafarroarekiko duen maitasunak motibatu zuela nabarmendu zuen eskultoreak.

Iruñeko Kaskallueta Kultur

Erreproduzioak

Bana jasoko dute Nafarroa Bizirik Fundazioaren alde 2000 edota 6000 euroko dohaintza ematen dutenek, Basterretxeak sinatuta, eta agiri legal guztiekin.

Elkartean egin zuen aurkezpena eskultoreak, egitasmoaren sustatzaile Nafarroa Bizirik Fundazio-kideak aldamenen zituela. Etxarri Aranaz Udala ordezkatzuz Joxi Bakaikoa eta Kitz Mendiola izan ziren, baita Juan Kruz Aldasoro politikaria ere.

Aurki

Urtea despeditu aurretik Enneco eskultura beretokian kokatuko da. Horretarako, inguruaren garbiketa partziala egin beharko da. Fundazioak eta udalak auzolana deituko dute. Bi erakundeak Ingurumen Departamentuarekin harremanetan daude, Basopokale eta Danbolintxulo artean, parkeak hartuko duen eremuko natur baliabideen inbentarioa egiteko. Dauden natur baliabideetara egokitu eta integratu nahi dute proiektua, basoaren izaera, orografia eta baliabideak mantenduta.

Altsasu, Bertsolari Txapelketa Nagusiko geldialdia

Igandean, 17:30ean Burunda pilotalekuan kanporaketa jokatu da

Dozena erdi bertsolarik 800 zaleturen aurrean parte hartuko dute etzi XVI. Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusiko txapelketan. Hobekien ibiltzen dena zuzenean final-aurrekoetarako sailkatuko da eta gainontzekoak puntuaren zain geldituko dira aurrera eginen duten 16en artean dauden jakin ahal izateko.

Lana

15 bertso puntuagarri kantatu beharko dituzte, horrela banatu-

ta: binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko handian; binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko txikian; banaka, lehen puntua emanda, hiru bertso zortziko txikian; binaka, gaia emanda, hamarreko txikian hiruna bertso eta kartzelako lana: banaka, gaia emanda, hiru bertso nahi den doinu eta neurrian.

Sarrerak agortuta

www.bertsosarrerak.eu atarian informazio guztia.



Beleixe Irratia, FM 107,3

Sakanako Irrati euskaldunak zuzenean emanen du saioa, Info 7 irratiaren seinalea zabalduz.

Bertsolariak

Beñat Gaztelumendi Arandia (Añorga, 1987)

Ikus-entzunezko Komunikazio ikasi du, eta egun kazetari lanetan aritzen da. Igeldoko, Hernaniko eta Santutxuko bertso-eskoletan ibilia da. Bigarren egin zuen 2007ko eta 2011ko Gipuzkoako Txapelketan. Bigarren aldiz parte hartuko du Txapelketa Nagusian.



Erika Lagoma Pombar (Lesaka, 1981)

Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen transmisio eragilea da. Gazterik hasi zen Bortzirietako bertso-eskolan. Bitan izan da Nafarroako Eskolarteko txapeldun. Hirugarren egin du aurten Nafarroako Bertsolari Txapelketan. Bigarren egin du Txapelketa Nagusian.



Jexux Mari Irazu Muñoa (Larraul, 1972)

Filosofian lizentziatua da. Azken urteotan bertsolaritza eta ikusentzunezko komunikazioa uztartu ditu. Bertsoa.com plaza digitalaren sortzailea da. Tolosako eta Hernaniko bertso-eskoletan ibilitakoa da. Txapelketa Nagusian bosgarren



aldiz parte hartuko du.

Oihane Perea Perez de Mendiola (Gasteiz, 1977)

Arabako Bertsozale Elkartearen eragile eta irakaslea da. 12 urte zituela hasi zen Gasteizko Bertso Eskolan. Arabako egungo txapelduna da, eta hirutan izan da herrialdeko txapelduna. Bertsolari Txapelketa Nagusian hirugarren aldiz parte hartuko du.



Unai Agirre Goia (Hernani, 1975)

Gipuzkoako Sagardogileen Elkartearen eragile eta lan. Langile ikastolan hasi zen bertsoetan. Hernaniko bertso-eskolako kidea da. Bitan irabazi du bertsolari gazteentzako Lizardi sariketa eta behin Orixe sariketa. Laugarren aldiz parte hartuko du Txapelketa Nagusian.



Xabier Silveira Etxeberria (Lesaka, 1976)

Idazlea eta zutabegilea da. Besteak beste, Zaharrak Berri Xou eta MC Txirrita proiektuetan parte hartu du. Zazpi aldiz irabazi du Nafarroako Bertsolari Txapelketa, eta egungo txapelduna ere bera da. Laugarren egin du Txapelketa Nagusian.



Bazkaltzeko deskontuak

Bierrik Fundazioak Arkangoa, Biltoki eta Kaixo jatetxeekin elkarlanean, bazkal garaian deskontuak eskaintzen dizkie bertsozaleei. Horretarako Altsasuko kanporaketako sarrera aurkeztu behar da soil-soilik. Arkango jatetxeak 19,95 euroko menua prestatu du bertsozaleentzat Altsasura etorriko direnendako. Biltoki jatetxearen menu eskaintza 21,25 eurokoa da. (Bietan deskontua barne dago). Kaixo jatetxean, berriz, menuan, plater konbinatuak eta ogitarkeoetan eskainiko dituzte deskontuak. On Egin Bierrik Fundazioaren ekimena da. Bierrik-ek Sakanako euskarazko hedabideak (Guaixe astekaria eta Beleixe Irratia) sustatzeaz aparte, ibarreko ekonomia mugitzeko ahaleginak eginen ditu. Bi urte eta erdi daramatza bazkide txartela eskaintzen (eskualdeko 80 komertzio baino gehiagotan deskontuak lortzeko aukera ematen duena). Maiatzean Altsasuko Antzerki Zikloarekin antzeko aukera eskaini zuen. Gaur aurkeztutako egitasmo gehiago egiteko asmoa du etorkizunean Bierrik-ek eta, horretarako, Sakanako eragileekin elkarlanean aritzeko prest dago.



www.bertsosale.com

Bertsolari Txapelketa Nagusia 2013

KANPORAKETA
ALTSASU
Burunda pilotalekua
Urriak 13, 17:30ean

Kulturarekin on egin

Kanporaketako SARRERA AURKEZTU eta menuan... deskontua

KAIXO
948 469 124 Menua Konbinatuak Bokatak

ARKANGOA
948 562 134 19,55€

BILTOKI
948 467 876 21,25€

Prezio hauetan deskontua aplikatuta dago.

EZAGUTU IORTIAKULTURA BERRIA

CUANDO EL MUNDO NECESITA A UN HÉROE, LA MEJOR SOLUCIÓN ES UN VILLANO

3€

FRANK LANGELLA, JAMES MARSDEN, TYLER, SARAHNOON

UN AMIGO PARA FRANK

5€

GRU 2: MI VILLANO FAVORITO

UN AMIGO PARA FRANK

OSTIRALA IGANDEA
11 22:00 13 20:10

948564272 - iortia@altsasu.net - iortiakultura.com

G

asteko >> : eguraldia

ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 35%	euria: 10%	euria: 10%	euria: 15%	euria: 15%	euria: 18%	euria: 23%
Min: 6 Max: 10	Min: 3 Max: 15	Min: 6 Max: 17	Min: 8 Max: 18	Min: 11 Max: 17	Min: 10 Max: 19	Min: 9 Max: 18

: temperatura >>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m ²
Irurtzun	-	-	-
Etxarri A.	25.5	4.5	82.8
Altsasu	24	6.5	40.3
Aralar	18	5.2	33.3
Urbasa	23	4	71.9

: ilargiaren aldia >>

ilgora	ilbete	ilbehera	ilberri
11	18	26	3

Acrycolor
SISTEMA BERRIA

KOLOREA

GEHIAGO ETA HOBE

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK

Tel: 948 563 253
Arkinorruti Industrialdea, OLAZTI
Erakusketa: Olite kalea 16 IRUÑEA

www.ventanasegoki.com

Urriko **bazkide zozketa**

URRIKO SARIAK:
1-12 LITRO LACTURALE ESNE ERDIGAINGABE-TUA+2 SARRERA EKAINBERRI+ XOTA IKUSTEKO 2SARRERA
2-TOALLA BAT+AQUARIUM SARRERA+XOTA

IKUSTEKO 2 SARRERA
3-KATXIPORRETA KAMIXETA+AQUARIUM SARRERA+ XOTA IKUSTEKO 2 SARRERA
4- KATXIPORRETA KAMIXETA+AQUARIUM SARRERA+ XOTA IKUSTEKO 2 SARRERA

>> 11 galdera

Koldo Murgiondo Mundiñano

Trinkete Mundialeko pilotaria

Testua: Eneida Carreño eta Maider Betelu

1. VIII. Trinkete Mundiala Uruguayk hartuko du eta zu bertan ariko zara. Emozionatuta? Gogoezin. Mundiala urriaren 13tik 19ra jokatu da. Trinketean bizpahiru urte daramatzat, baina ni eskupilotan hasi nintzen eta ez dut utzi. Soldadura ikasketak egiten nago, Altsasun, eta bueltatzerakoan egunean jarri beharko dut.

2.Noiz hasi zinen pilotaka? Etxarrin, 6-7 urterekin. Ikastolako atsedendietan hasiko ginen jolasten. Orduan lagun guztiak pilotaka ibiltzen ginen. Gero Etxarriko klubean hasi nintzen, eta bertan egon nintzen kadete mailaraino. Gero, kadeteetan Arbizura joan nintzen, Aldabidera.

3.Eskupilotatik trinketerako saltoa noiz eman zenuen? Trinketean boleara asko jokatzen da eta ikusten zuten bolearekin nahiko ondo moldatzen nintzela. Ea trinketea probatu nahi nuen esan zidaten eta animatu nintzen. Gero GRAVN txapelketan hasi nintzen lehian, Nafarroako selekzioarekin, trinketean. Gipuzkoa, Araba, Gipuzkoa, Bizkaia, Nafarroa eta Errioxako selekzioen arteko txapelketa da, ezker paretako frontoian, trinketean, eskupilotan eta erremintan jokatzen dena. Horretaz gain, Nafarroako klubean arteko trinkete txapelketa jokatzen nuen.

4.Zer da trinketea? Trinketea frontoi berezia da: ezkerreko paretan teilatu baten antzekoa du, frontisetik errebateraino. Eskuin aldean pareta bat du, kristal bat. Eta aurrean dago beste pareta bat, ez dakit nola azaldu, gurutzatuta. Trinketea motzagoa da, 28



metro ditu. Ezker paretako frontoi batek, aldiz, 36 metro. Entrenamenduak ez dira asko aldatzen. Berotu eta partidak egiten ditugu. Eta noizbehinka sakeak, boleak, erreboteak eta beste landu.

5.Nola jokatzen da trinketean? Banaka edo binaka. Ni binaka ariko naiz Mundialean, trinketea eskupilotan. Trinketea eskupilotarako 2 nafar eta 2 gipuzkoar goaz. Bat banaka ibiliko da, bi binaka eta bestea ordezkoa da. Beste nafarra Unai Martikorena da, Igoakoa. Nafarroako selekzio-kide gara eta elkarrekin entrenatzen ginen. Bi gipuzkoarrak GRAVN txapelketan ezagutu nituen. Gero, pala motzean 3 pilotari doaz, emakumezkoen paleta argentinarran 3 eta gizonezkoen paleta argentinarran 2.

6.Orohar pilotari asko zabiltzate trinketean? Ez. Niriesaten didate trinketea dela pilotarako balioez duen jendearendako. Zaharrendako dela. Baina Mundiala 22 urtez azpikoa da.

7. Holako mundialak antolatuko ez balira, trinketea desagertzea legoke? Baietz uste dut. GRAVN txapelketa da trinketea indar gehiena duena. Gero Nafarroan egiten da trinkete txapelketa bat banaka eta beste bat binaka, baina hor ez dira pilotari asko aritzen. Trinkete frontoiak Mendillorri, Oberena,

Tenis eta Larrabiden daude, azken hau berria, eta Lekunberrin.

8. Zein izanen da zuen arerio gogorrena Mundialean? Frantzia. Hemen eskupilotan gabil-tzan moduan ibiltzen dira beraiek trinketean. Eta Mexikon ere ongi dabilta. 5 selekzioak jokatuko dugu. Denak denen kontra ariko gara. Lehendabiziko biek finala jokatuko dute, eta 3. eta 4. sailkatu direnek brontzea lortzeko partidak jokatuko dute.

9. Dominen bat ekartzeko aukerarik ikusten duzu? Dominaren bat igual bai. Espero dugu zerbait ekartzea.

10. 18 urterekin Uruguayra. Botilero, masajista... inguruan taldea sortuko zitzazun zurekin Uruguayra joateko gogoz! (Kar'kar). Bai. Lagunek bakarrik ez, familian ere etorriko ziren gustura, eta kanpokoak ere.

11. Handik bueltan zer? Arbizuko ohiko entrenamenduekin hasiko zara? Igual 2 hilabete daramatzat ezker paretako frontoi bat zapatu gabe. Mundialerako hautatu gintuztenetik ez dugu frontoi zapatu, jokatze posturak ezberdinak direlako. Azkenaldi honetan ia egunero Iruñera joan-etorrian ibili naiz, trinketean entrenatzen, eta badauzkat gogoak Mundiala pasatu eta ezker paretan hasteko.

2014ko egutegia zure taldearen argazkiarekin

Sakanako Igeriketa Taldea

2014

1988-2013 Gasa sako hiruak

POSTER EGUTEGIAK	
25	54 €
50	70 €
100	95 €

kolorez, 150 g papera, 300 x 490 mm

Koadrila, kirol talde, elkarte... ospakizun. Eska eizaiguzu zure egutegia!

Hainbat aukera: poster, boltsiko, aldizkari egutegiak...

Guaixe KOMUNIKAZIOA
948 564 275
argi@guaixe.net